

# 08

## AZAROA

### kale heziketa nazioarteko eskuliburua

kaleko gizarte langileen nazioarteko sarearen "nazioarteko kale heziketari buruzko gidaliburua (2008)" lanetik ateratako jardunbidea, metodoak eta tresnak.

(laburbildutako bertsioa)

2008



Kaleko Gizarte Langileen Nazioarteko Sarea eta Dynamo International.

PROGRESS programa, Europar Batzordea, eta Belgikako Garapenerako Hezkuntzaren Zuzendaritza Orokorren laguntzarekin.





The image shows the lower legs and feet of several people walking on a paved surface, with their shadows cast long and dark on the ground. The pavement has a repeating diamond-shaped pattern. The scene is captured from a low angle, emphasizing the length of the shadows.

# kale heziketa nazioarteko eskuliburua

kaleko gizarte langileen nazioarteko sarearen "nazioarteko kale heziketari buruzko gidaliburua (2009)" lanetik ateratako jardunbidea, metodoak eta tresnak.

(laburbildutako bertsioa)



# kale heziketa nazioarteko eskuliburua

kaleko gizarte langileen nazioarteko sarearen "nazioarteko kale heziketari buruzko gidaliburua (2009)" lanetik ateratako jardunbidea, metodoak eta tresnak.

---

(laburbildutako bertsioa)

**Idazle-taldea:** Annie Fontaine (Québec), Malin Andersson (Suecia), Tran Quoc-Duy (Vietnam), Jon Etxeberria (España), Edwin de Boevé (Bélgica), Juan Martin Pérez (México), Sébastien Kabw Mukanz-Diyamby (RDC), Maïta Giraldi (Francia).

**Irakurle-taldea:** Luis Helder Santos (Portugal), Moussa Sow (Senegal), Per Arne Skjeggstad (Noruega), Graeme Tiffany (Reino Unido), Bernard Heckel (Francia), Henning Pedersen (Noruega).

**Koordinazioa:** Maïta Giraldi Dynamo International.  
Edwin de Boevé, Dynamo International.

**Dynamo international:**

Rue de l'Etoile, 22  
1180 Bruselas - Bélgica  
Tel.: +32 2 378 44 22  
Fax.: +32 2 378 44 21  
Email: dynamo-int@travail-de-rue.net  
Sitio Web: www.dynamoweb.be

**Euskadi Tailerra:**

Pº Zubiaurre 30 bajo  
20013 Donostia  
Tel:943326784  
Fax:943326785  
Email: hezizerb@hezizerb.net

**Diseinua eta maketazioa:**

Cuarto y Mitad.

**Itzulpenak:**

Eskura Itzulpen Zerbitzuak S.L.

**Gipuzkoako Foru Aldundiaren kolaborazioarekin.**














## Kale heziketa. Nazioarteko eskuliburua.

Kaleko Gizarte Langileen Nazioarteko Sarearen  
 “Nazioarteko Kale Heziketari buruzko Gidaliburua (2009)”  
 lanetik ateratako jardunbidea, metodoak eta tresnak.  
 (Laburbildutako bertsioa).

	<b>1. Sarrera</b> .....	<b>10</b>
	<b>2. Nola hasi</b> .....	<b>12</b>
	<b>3. Kale heziketa non eta noiz egin</b> .....	<b>14</b>
	3.1. Klean denbora ematea .....	14
	<b>4. Kale heziketaren zikloak</b> .....	<b>18</b>
	4.1. “Alferkerian ibiltzea”: kale heziketaren estrategia garrantzitsua .....	18
	4.2. Klean ezagun bihurtzea, harremanak sendotzea .....	19
	<b>5. Kale heziketaren aurpegiak</b> .....	<b>22</b>
	<b>6. Jarrerak eta metodoak</b> .....	<b>26</b>
	<b>7. Ondorioa</b> .....	<b>30</b>



## 1. Sarrera.

Kale hezitzaileen nazioarteko sarea 2000. urtean bildu zen lehenbiziko aldiz. Eskuliburua hau kale heziketaren metodologia orokorrean dago oinarrituta, Nazioarteko Kale heziketari buruzko Gidaliburua delakoan. Gidaliburua hori 2009an argitaratu zuen sareak, 30 herrialde baino gehiagoko kale hezitzaileen laguntzarekin.

Kale heziketaren helburua da kolektiborik ahulena babestea –gehienetan, gazteak–, eta horiei baliabideak ematea beren buruak babes ditzaten. Kale hezitzaile gisa, baldintza zailetan bizi diren eta hainbat bazterketa-mota jasaten dituzten haur, gazte eta helduekin lan egitea da zure erronka.

Beraientzat, zu zara **lehen eta azken maila** hezkuntzaren eta gizarte-laguntzaren katean. Beste guztiak porrot egin duenean, zu hor zaude.

Kaleko gizarte-laguntzak adorea ematen die pertsona horiei, etapa bakoitzean gertatzen denaren protagonista bihurtzeko. Pixkanaka, metodo horri esker, konfiantzan oinarritutako harreman bat sortzen da. Horrek isiltasuna urratzen laguntzen digu, eta etengabeko laguntza ematea ahalbidetzen digu.

Haurra, gaztea zein heldua izan, gure egitekoa pertsona horiei laguntzea da. Alegia, beren **autoestimua** indartzea, **trebetasun pertsonalen** garapena bultzatzea, jasaten duten bazterketa-mota edozein izanda ere, eta **gizarte-bizitzako partaide** izaten laguntzea.

Kale heziketarako ez dago eredu finkorik. Hurrengo jarraibideak, hala ere, lagungarriak izango dira mundu osoko kaleko hezitzaileentzat, **jardunbide propioak asmatu eta garatzeko**.

Sareak **balio etiko sendoekiko** hartu duen konpromisoa islatzen dute jarraibide horiek: populaziorik baztertuenezikiko tolerantzia eta beren oinarritzko eskubideekiko errespetua.



## 2. Nola hasi.

Mundu osoan zehar, kale heziketak antzeko urratsak jarraitzen ditu. Hala ere, gogoratu behar da prozesu hau ez dela lineala. Ondoren azaltzen diren pausoak gainjarri egiten dira, eta elkar berrelikatzen dute.

Merezi du hasierako urratsei denbora eta ahalegina eskaintzea. Horri esker, errazago integratuko zara lan egiten duzun ingurunean. Gainera, hurrengo urratsetarako agertokia prestatuko duzu.

**Lehenengo urratsa ingurunea aztertzea** da. Bere **alderdi teorikoak** ezagutu behar dituzu (testuinguru historiko, sozial eta kulturala), eta baita **praktikoak** ere (jendea ezagutu).

**Bigarren urratsa** da jende gaztea eta besteak dauden lekuan **egotea**. **Behatu** egiten dituzu, nahitaez esku hartzeko beharrik gabe. Sarritan egin behar duzu hori, zure aurpegia ezaguna egin arte.

---

### **Nola identifikatzen dituzu gazteak?**

*Taldeak aurpegiak, 'itxurak', 'izaerak' etab. identifikatu behar zituen lorategietan, denden aurrean, SNCF geltokian, etab.*

*Gazte horiek beti tokiz aldatzen daudenez, taldeak bere oroimena trebatu behar du etengabe. Jarrera profesional hori joan-etorri asko eginez eta talde indartsu batekin bakarrik lor daiteke... eta ikusitakoa partekatuz.*

-----  
Iturria: Etat Des Lieux Centre Ville, codase France.

---

**Hirugarren urratsa** zeure burua **identifikatzea** da. Nor zaren esaten diozu jendeari, eta zergatik zauden hor. Orduan hasiko zara beraien artean izango duzun tokia negoziatzeko.

---

*Blaise ez zegoen etxean. Merkatura itzuli nintzen eta bere lagunak topatu nituen. Tarte batez, berriketan eta jolasean aritu nintzen beraiekin. Handik denbora askora, amore eman eta Blaisek lo egiten zuen lekua erakutsi zidaten... tren-geltokiko komunen atzean, bere bila zebilen inori bururatuko ez zitzaion toki batean'.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Togo.

---

**Laugarren urratsa** zure xede-publikoarekin harreman bat sortzea da, haiengana hurbiltzeko eta laguntza eskaintzeko.

---

*Behaketa-fasean antzeman genuenez, haurrak baldintza beldurgarrietan bizi dira. Ia ez dute jatekorik, eta bertako bizilagunek larriki mehatxatu, iraindu eta zapaldu egiten dituzte. Miresgarriak dira, oso sendoak eta berezko kodeak dituzte. Orain, beraien konfiantza geureganatzea da gure erronka.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Burkina Faso.



Norbaitekin lehenengo harremana izatetik bere konfiantza bereganatzera doan prozesua mailakakoa da. Mesfidantzaz tratatua izatetik, konfiantzan oinarritutako harreman bat edukitzera pasatuko zara. Beharbada, “atalase” batera helduko zara zerbait gertatuko da, zutaz fidatzen hasi direla esango dizuna. Hortik aurrera, errazago egingo zaizu gazteekin eta laguntza behar duten beste batzuekin hitz egitea.

*Bertako zigarro-saltzaileak esan dit gaztea niri buruzko galderak egiten hasi zaiola (Zertan dabil tipo hori hemendik? Ez da txarra izango, ezta?); une horretatik, badakit aurrerapauso bat eman dudala.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Vietnam.

**Bosgarren urratsa laguntzea eta esku hartzea da.** Lekuren bat sor dezakezu gazteekin harremanetan jartzeko, taldeka zein bakarka. Denborarekin, hortik komunitate-jarduerak sor litezke, laguntzen ari zaren pertsonen eta beste batzuen (merkatariak, tokiko agintariak, etab.) arteko negoziazioei esker.

*Kale hezitzaileen taldeek hezkuntza-zerbitzu informala ematen diete kalean bizi eta lan egiten duten Kathmanduko haurrei... aukera ematen zaie sozializazio- eta hezkuntza-jardueratan parte hartzeko – jolasak, kirolak, oinarrizko hezkuntza, kultura, kalean bizitzearen arriskuak, osasuna, HIESa, drogak, oinarrizko higiena eta osasun-laguntza.*

*Talde ibiltariak harremanak hobetzen dituzte bertako merkatariekin, errentatzaileekin, poliziarekin eta kaleko haurrei laguntzen dieten beste erakunde batzuekin, beren konpromisoa lortzeko eta kaleko haurrak gizartearen zati direla ulertarazteko. Orain, askok ezagutzen dituzte inguruetan bizi diren haurrak, eta begirunez tratatzen dituzte. Haurrek, beren aldetik, pertsona horiek eta beren jabetzak errespetatzen dituzte.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Nepal.

Azaldu ditugun bost urratsek bukatzen ez den soka bat osatzen dute. Izan ere, geroago beste gazte batzuk ezagutuko dituzu, edo laguntza behar duen beste norbait, eta berriro hasiko zara.

### 3. Kale heziketa non eta noiz egin.

Kale hezitzaile gisa, **erreferentzia-puntu** ezaguna bihurtzen zara. Beraz, **jarraitutasuna** garrantzitsua da. Lana utziz gero, kale hezitzaile berriari ingurunea erakutsi eta gazteak aurkeztu beharko zenizkioke. 'Konfiantzaren transferentzia' hori funtsezkoa da, eta zenbait hilabete iraun dezake. Eta hasi berria bazara, aurreko langileei ahal duzun informazio guztia ateratzen ahalegindu beharko zenuke.

---

*Davek uste du bere aurrekoek egindako lan apartari esker errazago integratu dela auzoan. Hala ere, hasieran, bere lankide berriek kaleetatik bakarrik ibiltzen uzten diote. Denbora horretan, gauza asko ikusten dituzu, baina zu ere asko ikusten zaituzte. Horri esker, 'ahoz ahoko' prozesu bat hasten da auzoan.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Quebec.

Sarritan, zure aliaturik handiena eremu politikoa da (tokiko agintariak, etab.). Beraiekin hitz egin behar duzu, lan egiten duzun pertsonen premia eta nahiei buruz. Helburu hori lortzea uste baino errazagoa izaten da, eta tokiko agintariek etab. irtenbide iraunkorrak aurkitzen lagunduko dizute.

Edonola ere, kale hezitzaileak enplegatzen dituen erakundeak **konfidentzialtasunaren** printzipioak errespetatu behar ditu, eta batez ere, **lanbideko sekretua**. Zuri uste onez emandako informazioa beste norbaiti eman ez gero, arrisku larrian jar dezakezu zugar jarritako **konfiantza**, lortzea hainbeste kostatzen da.

#### 3.1. Kanean denbora ematea.

Kale heziketak, lan egiten duzun pertsonengandik **fisikoki hurbil** egotea dakar. Beren bizitza jarraitzen duzu, eta bizitza horretan sartzen zara. Ez dituzu behartzen eskema instituzionalizatuak jarraitzea. Modu ez gogaikarrian lan eginez, beren espazioa eta denbora partekatuz, poliki-poliki integratu egiten zara.

---

*Stephanie eguneko zenbait orduetan metrora eta eskoletara joanez hasi zen. Azkar integratu zen, dagoeneko gazte asko ezagutzen zituelako... eta gazteek taldeekin harremanetan jartzen lagundu zioten. Denbora dezente eman zuen paseatzen eta parkean irakurtzen, jendeak maiz ikus zezan eta bere buruari zertan ibiliko zen galde ziezaion.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Quebec.

Kale hezitzaile gisa, toki askotan egin dezakezu lan: hondartzak, merkataritza-zentroak, tabernak, merkatuak, basoko etxolak, tren-geltokiak, kalezuloak, hiriguneak. Kale-ingurune guztiak desberdinak dira. Ez dira gauza bera prostituta gazteak dabilzan parke bat eta gazteek lurrean lo egiten duten taberna bat. Bakoitzak bere jokabide-kodeak ditu, eta kode horiek errespetatu behar dituzu.



*Ingurune berri batean sartu nahi dudanean, neure burua fisikoki eta mentalki prestatzen dut, eta horrek nire portaera eta gogo-aldartearen lantzea eskatzen du. Nire barruko estresa kontrolatzen saiatzen naiz. Nire itxuraren eta nire hitz egiteko moduaren alderdi guztiak aztertzen ditut, arrail handiegia egon ez dadin ni eta gazteen artean.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Vietnam.

Integrazio-fase honetan, kaleetan zehar ibiltzen eta behatzen baino ez zaudean, agian errudun sentituko zara, ezer ez dirudien zerbait egiteagatik kobratzen ari zarelako. Beharbada lanpetuta egon behar duzula sentituko duzu, emaitzak behar dituzula. Gogoratu, ordea, kale heziketa epe luzera begira egiten dela. Ezinbestekoa da inguru eta bertako jendea ezagutzeko, bien potentziala maximizatzeko. Inguruari buruz biltzen dituzun ezagutzak oso baliagarriak izango dira gerora.

Integrazio-fase honek, halaber, topatuko dituzun kode, hizkuntza, balio, dinamika, gatazka eta abarera **kulturalki egokitzea** eskatzen du, iritzirik eman gabe.

*Afrikan, familiaren ohoreak eta duintasunak sarritan lehentasuna dute haurraren ongizatearen aurrean. Beraz, haurraren eskubideak babestu behar dira, eta aldi berean, inoren hankarik zapaldu gabe aurrera egiteko estrategiak aurkitu behar dira. Gainerako lekuetan bezala, familia ez da arazoaren zati bat soilik; irtenbidearen zati ere bada. Hitzentzako eta elkarrizketarako espazioa berregin beharko genuke, beren adierazpen gogorretan antzematen den indarkeriak bere buru itsusia altxa ez dezan...*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Senegal.

Kale hezitzaile gisa, **elkartasuna** erakutsi behar duzu, baina **desberdintasuna** ere bai, lan egiten duzun jendearekiko. Ez duzu saiatu behar beren ohiturak, tradizioak eta portaerak imitatzen, integratzea lortzeko.

Edozein egoeraren inguruabarrak hartu behar dituzu kontuan, eta baita testuinguru kultural, sozial, politiko eta ekonomikoa ere. Horrela, behatutakoan oinarrituz, eta ez zure usteetan, zer egin erabaki ahalko duzu.

*Kultura desberdinei buruz ari garenean, kaleko kulturetaz, gazteen kulturetaz eta hiri-kulturetaz ere ari gara; hiri eta aldirietan sortzen diren kulturetaz.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Euskal Herria.

*Soldadu izandako haur bakoitzari, bere herriko kanta bat abesteko eta dantza-pauso batzuk erakusteko eskatzen diot. Marrazkiak ere erabiltzen dira. Honela, haurrak beren herrietako tradizioei buruzko informazioa ematen hasten dira. Eta orduan, beren familiak bilatzen has gaitzke.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Kongoko Errepublika Demokratikoa.

**Ingurua ezagutzen zoazen neurrian**, jendearen eguneroko borrokak eta ohiturak partekatzen hasten zara. Horri esker partekatutako bizipenen multzo bat sortuko da, etorkizuneko proiektuak eraikitzen lagunduko dizuna.

---

*Inguruan nire burua ikusgai egin ondoren, hezitzaile naizela azaldu, zein enkargu dudan eta abar adierazi, hutsunea eta mespretxua sentitu ondoren, ezagutua izan gabe ibili ondoren, talde batengana hurbiltzen ausartu eta gero... ingurua fisikoki eta emozionalki ezagutzeko prozesu oso luze baten ostean, lehenengo eskaerak agertzen dira: norbait ni igarotzeko zain dago edo bilatu egiten nau kontaktuan sartzeko.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Euskal Herria.

---

*Bizitzako errealitateak partekatzeak... "hondar-otordu" bat, futbola, taldeko eztabaida bat... gauza horiek elkartasuna eta konfiantza sortzen dute; beren pentsamendu, poz eta nahigabeetako batzuk ulertzen ditugu, beren matxinada- edo erresistentzia-sentimenduak. Honelako bizipenek testuinguruari erantzun egokiak ematen laguntzen digute, gazte horietara moldatutakoak.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Vietnam.



## 4. Kale heziketaren zikloak.

Kalean bizi diren pertsonen bizimoduan ustekabeko aldaketak gerta daitezke. Kale hezitzaile gisa, aldaketa horietara egokitu behar duzu. Zure ordutegia etengabe aldatuko da. Batzuetan, ordu jakin batean toki zehatz batean egon beharko duzu. Hala ere, pertsona hauek daramaten bizimoduaren ondorioz, baliteke zure planak berrantolatu behar izatea, agian behin baino gehiagotan.

---

*Bi taldek (talde bakoitzean bi pertsona daude, grekoz dakien bat eta albanieraz dakien beste bat) bi eremu desberdinetan lan egiten dute, eguneko hainbat ordutan, haur-esplotazioa egunez eta gauez behatzeko. Orduaren arabera, adin-taldeak desberdinak dira. Haur txikiak egunez aritzen dira, eskean eta salmentan. Haur zaharragoak gauez aritzen dira, loreak saltzen edo diskoteka eta jatetxeen kanpoan musika jotzen.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Grezia.

Kalean ematen dituzun orduak maiz aztertu eta berrantolatu behar dituzu, pertsona bakoitzaren bizitzan gertatzen diren aldaketetara egokitzeko. Ez duzu gertatzen denaren haria galdu behar. Baina aldi berean, kontuz ibili behar duzu gehiegi ez nekatzeko.

Denborak aurrera egin ahala, bileren eta beste zeregin batzuen ondorioz, kale hezitzaile askok gero eta denbora gutxiago igarotzen dute kalean. Hurrengo gomendioak lagungarriak izan daitezke:

- Oreak bat aurkitu behar duzu zeregin horien eta etengabe kalean egotearen artean. Zure egutegian kalean egoteko egunak finkatu behar dituzu.
- Kaleko presentzia hori oso garrantzitsua da, batez ere nerabeentzat.
- Kaleetan behar adina denbora eman behar duzu, zuregana hurbiltzen ez den jendearengana joateko. Pertsona horiek dira kale heziketaren xede nagusia.
- Jarri arreta zure eskuragarritasun eta hurbilerraztasunean.
- Ahal baduzu, finkatu egun zehatzak, leku zehatzak eta ordu zehatzak kalean egoteko. Horrela, pertsona zehatzak non eta noiz aurkitu jakingo duzu, eta pertsona horiek ere jakingo dute zu non eta noiz aurkitu.

### 4.1. 'Alferkerian ibiltzea': kale heziketaren estrategia garrantzitsua

Integrazio-prozesu luzean zehar aurrera zoazela, kalea, bertako giroa, bere erritmoak eta bertan gertatzen diren harremanak ulertzen hasiko zara. Hartu behar duzun denbora guztia 'alferkerian ibiltzeko' - 'ezer ez egiteko'. Zure rola zuhurtziaz eraikitzen lagunduko dizu horrek; hurbilerraz bihurtzen, zure zeregina inposatu gabe.

---

*Rockyngana (8 urte) hurbiltzeko, edari azukredun bat eta janari pixka bat eskaini nion, gosez amorratuta baitzegoen. Zenbait aldiz gauza bera egin nuen, eta azkenean bere egoera kontatu zidan. Lau urte zituela, bere amak Angolara alde egin zuen, aita hil eta gero. Inor ez zen arduratzen bere premiez (eskola, arropak, janaria...). Bere familiari buruzko xehetasun batzuk atera nizkion, eta aitonarekin jarri nintzen harremanetan. Nahikoa izan*



*zen biek elkar ikustea arazo guztia konpontzeko. Gaur egun, Rocky aitonarekin bizi da eta bizimodu normala darama.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Kongoko Errepublika Demokratikoa.

“Ezer ez egitea”-ren artea kale heziketaren gakoa izan daiteke.

*Zure xede-publikoa sarritan egoten den tokietan eroso sentitzeko trikimailu bat: goiz iritsi eta zerbait egiten zaudenaren itxurak egin (adibidez, egunkaria irakurtzen): gauza asko ikas ditzakezu kale heziketatik!*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Quebec.

Lanari dagokionez, ezin duzu dena aldez aurretik antolatu. Hala ere, zure lanak **egokia** eta **eraginkorra** izan behar du. Hurrengo gomendioak lagungarriak izan daitezke:

- Proiektuek-baita ‘aurrez prestatutako’ kale heziketako programek ere-**malguak** izan behar dute.
- Izan zaitez **sortzailea**, eta **egokitu** programa horiek beharrezkoa bada.
- Besteak **behatu**, **aztertu** eta beraiekin **nahastu**.
- Gogoratu prozesu honen **kalitatea** garrantzitsuagoa dela emaitzak baino.
- Zure lanari esker edo hura gorabehera, egoeratik ondorioztatzen den guztiarekiko harkorra izateko **konpromisoa hartu**.

## 4.2. Kanean ezagun bihurtzea, harremanak sendotzea

Kale hezitzaile gisa, azkenean ingurunearen zati bihurtzen zara–zure laguntza behar dutenezkat eskuragarri. Zure sareen bidez, elkartasunaren oinarriko zentzua berrezarriko duzu eta auzoaren gizarte-ongizateari lagunduko diozu.

Quebec-en, “Poteau” izeneko kontzeptua erabiltzen da kale hezitzailearekin harreman sendo bat duen jendeaz mintzatzeko. Pertsona hauek integratzen lagun diezaiokete kale hezitzaileari. Beste herrialde batzuetan, pertsona horiei ‘errelebuak’, ‘kontaktuak’, ‘lagunak’, ‘funtsezko pertsonak’ etab. deitzen zaie.

*Ezinbestekoa da harremanak eraikitzea kaleko gazteen espazio bera partekatzen duten edo haiengandik hurbil dauden hirugarrenekin (adibidez, hotel edo taberna famatu baten jabea, auzoan zigarroak saltzen dituen pertsona...)*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Vietnam.

Zure egitekoa beti argi izan behar duzu. Esaiozu jendeari zer egitera zoazen.

“Zertan egiten duzu lan?” galdera maiz entzuten da.

- Seguruenik **erantzun desberdinak** emango dituzu, galdera egin dizun pertsonaren arabera.
- Azaldu zergatik ari zaren **kontaktuak eta harremanak eraikitzen gazte eta helduekin**.
- Eman adibide batzuk, baina **konfidentzialtasuna** arriskuan jarri gabe.
- Egon prest zure **enplegatailearekin** eta **beste erakunde batzuekin** (adibidez, poliziarekin) duzun harremana azaltzeko.

Gehiegitan, kale hezitzaileei segurtasuneko eta gizarteko 'arazoei' heltzeko eskatzen diete. Politikariek, sarritan, nahastu egiten dute kale hezitzaileen eginkizuna beste profesional batzuen eginkizunarekin. Batzuetan, adibidez, polizia gizarte-jarduerak egiteko eskatzen diote. Edo kale hezitzaileei ordena publikoa ezartzen laguntzeko.

Gazteek eta zailtasunak dituzten beste pertsona batzuek harreman konstruktiboa eraiki behar dute legearekin. Argi izan behar dute poliziaren egitekoa zein den, hezkuntza-taldeena zein den, eta zertan desberdintzen diren.

Kale hezitzaile gisa, litekeena da zu izatea gazteekin harreman libre eta egonkor bat sor dezakeen eta legea errespetatzen duen pertsona bakarra. Sarritan, gazteek **probatu** egiten zaituzte. Beraz, heldu **sinesgarri** gisa beren **erreferentzia-puntua** bihurtzeko, modu egokian erreakzionatu beharko duzu.

---

*Probetako bat zen kale hezitzaileak nola erreakzionatzen zuen ikustea, norbaitek bere arropen artean laban bat ezkutatuta zeukala konturatzerakoan.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Quebec.

Kale heziketa gizarte-bazterketa jasaten duten pertsonen gizarte-heziketa ematea da, beren ingurunean bertan. Horrek erronka bat dakar, hainbat pertsonaz osaturiko sare batean lan egin behar duzulako:

- laguntzaren xedea diren gazteak eta helduak.
- Auzoan bizi diren beste batzuk.
- Auzoan diharduten gizarte-arloko profesionalak.
- Bertako politikariak.

Zure taldeak sare honetan duen tokia negoziatu beharko du. Horretarako, hezkuntza-lan informal honen ezaugarriak azaldu behar dira (kale heziketa lan horren funtsezko zatia da). Termino batzuek, esaterako, "hezkuntza komunitatean", "presentzia soziala" edo "bideratze-lana", sarritan ez dituzte behar bezala adierazten kale heziketaren ezaugarri berezi eta bakarrak; beraz, zure lana kontu handiz azaldu behar duzu.

Baliteke erakunde batzuek zu beren kideztat hartu nahi izatea, oraindik xede-publikoa ezagutzeko aukerarik ere izan ez duzunean. Gogoratu, hala ere, zure lehenengo urratsa hau dela: harreman sendo bat eraikitzea, konfiantzan oinarritua, kalean daudenekin.



## 5. Kale heziketaren aurpegiak

Hiru ekintza-mota daude:

- Banakako lana.
- Taldekako lana.
- Komunitate-lana eta erakundeekin egindakoa.

Kale heziketa, egoera jakin batean **dagoen potentziala erabiliz** garatzen da. **Xedeak eta helburuak** bigarren mailakoak dira.

Ez zenuke **zeure irtenbidea** inposatu behar. Horren orde, elementu batzuk elkartzen diren arte itxaron beharko zenuke. Orduan, saihestezin bihurtu den prozesu bati **lagundu** ahalko diozu.

Prozesu hau ezin da banandu **testuingurutik** eta **ingurunetik**. Egoeraren inguruabarren menpe zaude, eta ezin duzu alde aurretik asmatutako irtenbiderik ezarri.

Hezitzaile batzuek janari-txartelak, kirol-ekipoak, ikuskizunetarako txartelak edota bidaiatxartelak eskaintzen dituzte; musika grabatu edo bideo bat egiteko laguntza ematen dute, edota kondoia eta xiringak banatzen dituzte.

Tresna horiek ez dute, berez, xede bat lortzeko balio. Hala ere, harreman garrantzitsu baten erakusgarritzat eskaintzen badituzu, baliagarriak izan daitezke.

### **Banakako laguntza.**

Beharbada, hainbat zailtasun dituzten pertsonen laguntzeko eskatuko dizute, epe laburrera nahiz luzera. Laguntza emateko orduan, gizabanakoaren eskubideak, konfidentzialtasuna eta emantzipatzeko premia errespetatu behar dituzu.

### **Banakako laguntzan entzutea eta negoziatzea.**

Harremanetan hasi ondoren, eman denbora gizabanakoarekin eta interesatzen zaizkion gaietaz hitz egin, garrantzitsuak zein azalekoak izan. Bere beldurrak eta premiak kontatzen hasiko da. Orduan, elkarrekin, hainbat teknika eta tresna erabiliz, ekintza-plan bat prestatuko duzue. Fase honek egitura zehatz bat izan dezake ala ez. Biontzat garrantzitsua da hezkuntza-harreman honek nora daraman jakitea.

Egoera, helburuak eta erabiliko dituzun baliabide nahiz taktikak laburbildu beharko zenituzke. Aldian behin, plan hori dagokion pertsonekin ebaluatu eta berrikusiko duzu, eta baita kale hezitzaileen taldearekin ere. Horri esker, gizabanakoa aldaketaren eragile bihurtuko da. Gainera, kalterako jokabideak saihestuko ditugu (adibidez, jokabide paternalista).

---

*Kale hezitzaileak pazientzia izugarria eta buru-argitasun handia izan behar du. Gure lanaren xede diren pertsonak kalteberak dira. Beren egoerak konplexuak dira. Besteen onospena dutela sentitzen dutenean bakarrik onartzen dute beren burua; estigmatizatuta edo mespretxatuta sentitzen ez direnean.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Senegal.

### **Laguntza-harremanaren barruko prozesua.**

Lan hau nahiko korapilatsua da: hesiak apurtzen hasten diren unea da garrantzitsuena. Harreman baten hasiera da, hauskorra izan arren.



Sarritan, lehenengo eskaerak benetako premia ezkututzen du. Beharbada gauza zehatzak eskatuko dizkizute (adibidez, janaria edo aterpea). Edo baliteke gai konplexuagoekin lotutako laguntza eskatzea (droga ilegaleen kontsumoa, lana, egoera emozionalak, familia...)

*Anis ezagutu genuen (18 urte). Lo egiteko lekuren bat aurkitzen laguntzeko baino ez zigun eskatu. Hala ere, hainbat seinalek mutila asko sufritzen ari zela ohartarazi ziguten: etengabe alkohola eta kannabis mordoa kontsumitzen zuen, eta bere gorputz-higienearen egoera oso txarra zen.*

*Bere amarekin zuen harremana kontatu zigun, hitz oso gogorrak erabiliz. Baina elkarrizketaren amaieran, hezkuntza-kanpamentu batera joateko gomendatu genionean, bere amarekin harremanetan jartzeko eskatu zigun, hiru aste horiek berarekin igaro ahal izateko.*

*Elkarrizketa honi esker, landu beharreko eremuak ebaluatu genituen:*

*Lehenengo eremua: Aterpea, janaria, higiena.*

*Bigarren eremua: Bere sufrimendua (amarekiko harremana) eta bere autoestimua.*

*Hirugarren eremua: Sufrimendu horren ondorioak (alkohol- eta kannabis-kontsumoa, jokabide bortitza eta delitugilea).*

-----  
Frantziako Eybens taldearen 2007ko jardueraren txostenetik aterea.

Kale hezitzaile gisa, pertsona bati lagunduko diozu berak nahi duen bitartean, eta bera epaitu gabe. Gizabanakoan eta bere ahalmenetan bakarrik jarri behar duzu arreta.

*Denisek ia 50 urte ditu. Askotan duela dirudi. 20 urte daramatza prostituzioan, eta bere senar bortitzak irabazten duen guztia kentzen dio. Bere gurasoek beren buruaz beste egin zuten. Bere alaba hil egin zen, torturatua eta bortxatua izan ondoren. Bikote erantzulea laster kartzelatik irtengo da, zigorra bete ondoren. Isabellek ez du etxera itzuli nahi. Aterpetxe batekin jarri genuen harremanetan, baina hortik alde egiten zuen. Orduan, beste erakunde batekin jarri genuen harremanetan, eta bizileku bat aurkitu zioten. Denisek prostituta izateari uztea erabaki du. Gaur egun, dibortziatzeaz dago eta pixkanaka bizitzaz gozatzen hasi da.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Belgika.

### Taldeko ekintza.

Taldeko ekintzak ate asko ireki ditzake. Kale heziketaren oinarria gizarte-bizipen partekatuak sortzen eta konfiantza handitzen duten jarduerak dira.

Hasieran, ez du emango zure esku-hartzeek garrantzia handirik dutenik. Baina geroago, arazoak azaltzen direnean, oinarritzko lana eginda izango duzu, eta eraginkortasunez jokatu ahal izango duzu.

*Batzuetan, lagungarria da 'elkartzeko aitzakiak' erabiltzea. Taldeko jarduerak proposa ditzakezu kalean egiteko (capoeira, danborrak jotzea, malabarismoa, futbola...). Horren helburua zein den azaldu behar duzu. "Gizarte-langileak gara; trebetasunak eta denbora libredu dugu; sekretuak gorde behar ditugu; arazoren bat baduzue, gugana jo dezakezue;*

*hala ez bada, ez baduzue nahi horri buruz hitz egiterik, orduan futboleko jokatu gara". Helduentzat, beste 'aitzakia' batzuk erabil ditzakezu: kondoiak edo xiringak banatu, zopa edo kafea eskaini. Kale hezitzaile batek esan digunez, bere txakurraz baliatzen da jendea beregana erakartzeko.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Belgika.

*Quebec-en, 'Munduko Zirkuak' aldi berean dibertigarria eta diziplinatua den ikaskuntza-prozesu bat eskaintzen die gazteei. Konfiantza handitu eta trebetasunak garatzen dituzte; gainera, gizartearen onarpenera eta, batzuetan, lorpen profesionalera daramaten taldeko proiektuetan hartzen dute parte.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Quebec.

### **Taldeko ikuspegia.**

Kale hezitzaileek lan ona egiten badute taldeekin, talde horietako kideek elkarri lagunduko diote. Taldeen helburuetan jartzen dugu arreta: aisialdiko jarduerak antolatzen ditugu, edota enplegura eta kultura sustatzera zuzendutakoak, eta hainbat ekimen bultzatzen ditugu (bizimodu osasungarria, etab). Taldeko ikuspegia asko erabiltzen da Mediterraneoko eta hegoaldeko herrialdeetan, bertan zailagoa baita talde horietatik kanpo lan egitea.

*Belo Horizonten, Capoeira eta danborrak erabiltzen ditugu gazteekin harremanetan hasteko. Epe luzera, taldeko koordinazio honek beste hezkuntza-abantaila batzuk dakartza. Capoeirista gaztea eredu bihurtzen da bere jatorrizko favelarentzat.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Brasil.

### **Komunitate-ekintza.**

Kale hezitzaile gisa egiten dituzun ekintzen bidez, lan egiten duzun ingurunean integratuko zara. Bertako jendeak pertsona sinesgarria zarela aitortuko du, komunitateari bere premiak betetzen lagun diezaikeena. Eskaintzen duzun banakako laguntzaren ondorioz, arazo asko topatuko dituzu. Behin eta berriz errepikatzen diren arazo horiek gizartearen benetako kezkak dira. Bertako politikariei nabarmendu beharko zenizkieke.

### **Komunitate-ikuspegia.**

Komunitate-ikuspegiak irudi orokor bat ematen dizu. Dagoeneko eskuragarri dagoen laguntza lortzea ahalbidetzen du, eta jendeak behar duen laguntza osagarria sortzea.

*Colomiers-en, Frantziako Hegoaldean, kale heziketak adin-talde desberdinak elkartzen ditu, inguruabar sozial eta kulturalak nahasteko. Jendeari beren grinak eta desioak azaltzeko eskatzen diogu, eta horiek proiektu-proposamen bihurtzeko. Jarraian, benetako herritar-azterketa batean hartzen dute parte, ideia horiek sorrarazten dituzten eztabaidetatik abiatuz. Eta gero, tailer prospektiboak ezartzen dira.*

-----  
ACSE Colomiers.



Kale hezitzaile gisa, xede-publikoei boterea ematen diegu. Partaidetzaren eta sormenaren bidez, gizartearentzat baliagarri direla sentitzen dute.

Tokiko elkartean lana ere bultzatzen dugu, jendeak dagoeneko eskuragarri dagoen laguntza lor dezan. Zure egitekoa da laguntza behar duten pertsonen eta beren ingurunearen arteko loturak berregitea. Ez da beren arazo guztiak zeuk bakarrik konpontzea.

---

*Sarritan, kale hezitzailea arazo guztientzat irtenbideak dituen pertsona dela uste du jendeak. Kinshasako auzo txiro bateko haurrekin eta beren gurasoekin elkartu nintzen behin, eta azaldu nien heziketa-zentro berri bati eta programa zehatz bati buruz hitz egiteko nengoela han. Haurrek hainbat arazorentzat irtenbideak topatzeko eskatu zidaten (eskola, elektrizitate-falta). Ama batzuek haurren auzia gobernura, UNICEFera etab. eramateko eskatu zidaten. Azkenean, nire buruari galdetu nion: Nor naiz ni? Kaleko hezitzaile bat edo Santa Klaus?*

---

Kale hezitzaileen lantegia, Kongoko Errepublika Demokratikoa.

---

Ez zenuke nahastu behar lehendik dauden erakunde horietan. **Bitarteko** gisa jokatu beharko zenuke. Dagoeneko eskura dagoen laguntza jasotzen lagun diezaiekezu premia duten pertsoneri. Eta erakunde horiei informazioa eman diezaiekezu, beraiengana jotzen duten gazteak hobeto uler ditzaten.

## 6. Jarrerak eta metodoak

---

*Garrantzitsuena ez dira jarduerak edo esku-hartzeak, konfiantzan oinarritutako harremana baizik... Haurrek... aholkuak eman aurretik, entzun egingo dien norbait behar dute. Ez genuke gezurrik esan behar, edo bete ezin diren gauzak agindu. Baina haurren gaitasunengan sinetsi behar genuke, eta gaitasun horiei balioa eman. Ezaugarri profesional horiek, eskarmentuaren bidez eskuratzen dituzte animatzaileek.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Filipinak.

Kale hezitzaile gisa, jendearen bizitzaren zati izateko pribilegioa duzu. Beren bizi-baldintzak eta bizimoduak ikus ditzakezu, beren eguneroko gorabeherak.

Beste metodo batzuek bezala, kale heziketak entzute aktiboa erabiltzen du. Baina kale heziketak badu desberdin egiten duen zerbait: entzute aktibo hori, gizabanakoaren ingurunean bertan egiten da. Berak erabakitzen du noiz eta non hitz egin. Eraikin baten eskailerak izan litezke, edo auto bat, taberna bat, eserleku bat, espalo bat; edo futbol-partida bat.

Une honetan, komunikazioak izugarriko garrantzia du. Konfidentziala, borondatezkoa eta neutrala den zuzeneko entzute-bide bat jartzen ari zara.

---

*Eskean eta autoetako leihoak garbitzen zebilen kaleetan, bere seme-alabekin. Hasieran, ez zen ausartzen ezezagunekin hitz egitera... Hitz lagunkoi batzuen bidez, bere seme-alaben osasunari buruz galdetuz, azkenean lortu genuen komunikatzea. Oso garrantzitsua da azpimarratzea elkarrizketetan zehar ez ginela informazioa ateratzen saiatu. Entzule ona izateak harreman egonkorra eta iraunkorra eraikitzen laguntzen du. Azkenean, amak bere arazoak aitortu zizkigun... 4 hilabete pasatxoko lanaren ondoren, berak eta seme-alabek jarduera guztietan parte hartzea lortu genuen.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Albania.

Entzute-ariketa honek funtzionatzeko, zure jarrerak oso argia izan behar du, bestea ez nahasteko. Bere ingurunera sartzeko zaude hor-eta gero berriro irteteko. Zu mezulari bat zara; zubi bat, lehenengo kontaktua, galdutako kate-maila; kontsolamendua eta laguntza ematen duen norbait.

Ez zara egoiliar bat, ezta auzotar bat ere, eta ezta senide bat ere. Lagunkoia izango zara, baina ez zara laguna. Horregatik, lan egiten duzun auzoan bizitzea ez da batere egokia, ezta eraginkorra ere.

---

*Kale hezitzaileek... gazte hauek eguneroko bizitzan ezagutzen dituzten helduetatik desberdinak izan behar dute. Ghetto sozialetik kanpoko errealitatearekin harremanetan jartzeko aukera sortzen dugu. Gauzak errazagoak dira kale hezitzailea ez baldin bada*



*ghettoan bizi. Behin arazoak izan genituen kale hezitzaile batzuekin, lan bikaina egin arren, oso hurbil bizi zirelako...haurrak ate joka hasten zitzaizkien... Une batzuetan, ez duzu lanaz ezer jakiterik nahi.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Polonia.

Aipatu jarrerak honako hau eskatzen du:

- Konpromisoa.
- Ez epaitzea.
- Zuhurtzia eta konfidentzialtasuna errespetatzea.
- Zeharka jardutea, metodorik eraginkorra delako.
- Etengabe egokitzeko ahalmena izatea.
- Planifikazioan denbora gehiegi ez galtzea.
- Batzuetan, lekuan bertan egotea metodoaren zati dela onartzea, eraginkorra iruditu ez arren.

Normalean, kale hezitzaileak erosoago sentitzen dira (baina zalantzatiago ere bai) hainbat zeregin dituztenean. Hau da, arreta ez dutenean gauza bakar batean jartzen (gai ilegalen kontsumoan edo delitugintzan). Gai horiei modu orokorragoan begiratzean, beren testuinguru sozialean kokatu ahal izango dituzu.

Kale hezitzaile gisa emaitzak lortzeko, honela lan egin behar da:

- Epe luzera.
- Poliki.
- Etengabe.

Hasieran, beharbada, berriketan edo jolasean aritzea ez zaizu garrantzitsua irudituko. Zure lanaren alderdi informal horietan ematen duzun denbora, ordea, oso baliotsua da. Harremanak eta konfiantza sortzeko balio du. Horri esker, beranduago, arazoren bat azaltzen denean, lana errazagoa egingo zaizu. Egoera bati malgutasunez erantzun ahalko diozu. Zure erreakzioak bat etorriko dira laguntzen ari zaren pertsonen premiekin, itxaropenekin eta kulturarekin. Honi 'amu bikoitza' deitzen zaio.

*Kamel maiz etortzen zen nire kirol-jardueretara. Batzuetan ubeldurak zeuzkan, baina ez zuen inoiz horri buruz hitz egiten. Egun batean, kalean egin genuen topo. Besoa hautsita zeukan, eta aita zen erantzulea. Bere arazoa kontatu zidan. Kirol-jardueren bidez elkar ezagutu izan ez bagina, ez zuen inoiz niregana joko. Gure harremanari esker, unerik garrantzitsuenean, eraginkorra izan nintzen eta laguntza eskaini nion. Aitak ez zuen sekula berriro jo.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Belgika.

### **Umorea.**

Umorea ezin da bereizi kale heziketatik. Umorea adimenez eta zorroztasunez erabiliz gero, egoera zailak arin ditzake. Saihestu sarkasmoa eta ironia, min egin dezakete eta.

*Haurrekin lan egiterakoan, saia zaituz irudimentsua, dibertigarria eta dinamikoa izaten. Ahalegindu zaituz egunetik egunera jarduerak aldatzen, haurren eskaerak kontuan hartuz. Horrela, haurrak adi-adi egongo dira eta ez dira aspertuko.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Nepal.

### **Jendea sistemarekin lotzea.**

Kale hezitzaile izanik, lotura baten modura jokatzeko duzue kaleko pertsonen eta beste profesional batzuen artean. Lehendik dauden laguntza-egiturak ongi lotuta badaude, bide sozial eraginkorrak sortzen dituzte. Kale hezitzaile gisa, bestela inoiz joango ez liratekeen toki eta gertakizunetara eraman ditzakezue gazteak (gazteentzako ostaluetara, kirol-ekipamenduetara, kultura-ekintzetara). Helduei, berriz, gizarte-zerbitzu publikoetara joaten lagun diezaiekezu (lege-aholkularitza, osasun-sistema, erakunde sozialak...).

*Lankidetzak da esku-hartze holistikoa eta eraginkor baten gakoa. Gobernuak eta gobernuak kanpoko hainbat egiturez osaturiko sare batek... zerbitzuak eskaintzen dizkie haurrei eta beren gurasoei.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Albania.

### **Bideratzea eta zerbitzu berriak sortzea.**

Egingo dizkizuten eskaera askok zure ahalmena gaiztatu dute. Kasu horietan, jendea profesional espezializatuagoengana bideratu beharko duzue.

Normalean, gizabanakoari laguntzeko, dagokion profesionalarekin laguntza-egitura bat antolatzen da.

Batzuetan, ordea, ez dago halako zerbitzu edo profesionalik. Orduan, kale heziketak behar den laguntza susta dezake. Kale heziketa-programa batek, adibidez, proiektu pilotu bat sor dezake eskaera handi bati erantzuteko. Tokiko agintaritzak, geroago, proiektu hori abian jar dezake.

Honela, kale hezitzaileek gauza asko antola ditzakete, adibidez ludotekak, osasun-zerbitzuak, gazteentzako zerbitzuak edo informazio-guneak. Eskaerei erantzuteko –eta geroago, horiek instituzionalizatze-ko-, baliteke beste hezkuntza-sektore batzuk aldi baterako inbaditzea. Beraz, kale hezitzaile gisa egiten duzun esku-hartzeak eragin handia izango du komunitatean.

### **Pertsonarik kalteberenak parte hartzera animatzea.**

Kale hezitzaileak kaleko jendeari hitza ematen saiatzen dira, agintariak beren premiak entzun ditzaten. Honela, kaleko jendeak eragina izan dezake politika berrietan. Zeregin zaila da hau. Hala ere, zure lanaren alderdi politikoa ez duzu ahaztu behar. Eragin izugarria du gizabanakoengan eta komunitateengan.

### **Jendearen ikuspegiak zabaltzea.**

Kale heziketak auzotik irteten laguntzen dio jendeari; zerbitzu, egitura edo toki berriak ezagutzen. 'Irekitze' horrek autonomo bihurtzen laguntzen die, eta egiteko gai direnaz jabetzen.

**Talde naturalekin jarduerak burutzea.**

Gizabanakoentzat, batez ere hegoaldeko herrietan, beren taldeak izugarritzko garrantzia du. Taldekideen arteko harremanak sendotzea da prebentzio-metodirik egokiena. Kale hezitzaileek jarduerak proposatzen dituzte; eta jarduera horien bidez, taldeak bere burua zalantzan jartzen du eta gero sendotu egiten da.

**Komunitateko beste batzuei laguntzea.**

Denbora hartu beharko zenuke komunitateko beste pertsona batzuekin hitz egiteko eta haien premiak entzuteko. Zerbitzariak, dendariak, polizia-agenteak, mekanikariak, saltaileak, buruzagiak... horiek ere komunitate-bizitzaren partaide dira. Haiei ere laguntza eman diezaiekezu.

**Komunitate-bizitzaren partaide izatea.**

Kale heziketa komunitatean egiten da. Komunitatearen testuingurua ezagutu behar duzu, zeure lagun bihurtu dadin. Alferrik da pertsona baten egoeran aldaketak egitea, aldaketa sakonagoa eta kolektiboa egiten ez baduzu. Gizabanakoei komunitatearen jardueratan parte hartzen laguntzen badiezu, konfiantza indartu eta jendea elkarrengana bilduko duzu.

**Komunitate horretan bitartekari gisa jokatzeta.**

Kale hezitzaile gisa, bitartekari baten modura joka dezakezu egoiliarrak, merkatariak, gazteak eta helduak elkarren ondoan bizi direnean. Tentsioak desagerrarazten lagun dezakezu, eta baita elkartasuna handitzen ere, bestela elkarrekin borrokan jarraituko luketen pertsonen artean.

---

*Merkatarien eta kaleko jendearen arteko bitartekaritza-zerbitzuak elkarbizitza hobetzen laguntzen du, eta integrazioa bultzatzen.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Quebec.

---



---

*Jabe-chefak baztertu egiten zituen bere jatetxearen inguruan zebiltzan kaleko haurrak, bezeroak gogaitzen zituztelako. Egun batean, kale hezitzaile batek jabearekin bazkaltzera gonbidatu zituen. Orduz geroztik, jabeak, bere negozioa oztopatzen duen zerbait beharrean, gazte behartsu batzuk bezala ikusten ditu haur horiek. Orain, bezeroek utzitako janari-hondarrak ematen dizkie. Gainera, haurrek ez dituzte mespretxuzko begirada horiek gehiago jasan behar, zaborretan hondarren bila ibiltzeagatik.*

-----  
Kale hezitzaileen lantegia, Senegal.

---

## 6. Ondorioa.

Kale hezitzailearen eginkizunak ezin dira zehaztu. Izan ere, kale heziketan, lan egiten duzun horiekin–zure laguntza behar dutenekin- konfiantzan oinarritutako harremanak sortzeko eta mantentzeko duzun ahalmenaren menpe dago arrakasta.

Kale hezitzaile gisa, zure helburua hau da: pertsona horiei, gizabanako gisa duten balioaz jabetzen laguntzea; beren egoera eta beren etorkizuna aldatzeko duten botereaz konturatzea. Besteei ere, kalean bizi diren pertsonen oinarrizko eskubideak aitortzen eta errespetatzen lagundu behar diezu. Horretarako, kalean bizi den jendea ‘arazo bat’ delako iritziaren aurrean, bestelako ikuspegi bat eman behar diezu; jende hori, edozeren gaineratik, pertsonak dira.

Eskuliburua honetan bildutako jarraibideak jarraituz gero, gauzak alda ditzakezu.



### • **Estrategiak.**

- Ikusgaia eta eskuragarria izan.
- Ez inor epaitu.
- Ekintzak eta egoerak behatzera mugatu.
- Komunitatearentzat baliabide bat izan.
- Jendearekiko eta beren inguruabarrekiko interesa erakutsi.
- Politikaren eta komunitatearen ikuspegia landu.
- Gizabanakoarekin lan egiterakoan, ez ezazu sintomatizat jo, aldaketaren eragiletzat baizik.
- Esku-hartzea harremanetan eta estimuan oinarritu.
- Komunitateari, bere burua beste modu batera ikusteko aukera eman, ohiko estigmatik haratago.
- Jendea, taldeak eta lehendik dauden bide sozial nahiz erakundeak elkarrekin lotu.
- Espazio neutral bat sortu jendearekin elkartzeko eta jarduerak sustatzeko.

### • **Taktikak.**

- Auzoan zeure burua ezaguna izatea lortu.
- Zuhurtziaz eta errespetuz jokatu.
- Bildu informazio askotarikoa eta erabilgarria: lehen laguntza, Interneteko guneak, arriskuen murrizketa, auzoari buruzko albisteak; antzekotasuna eta adiskidetasuna eskaini...
- Eskaerak ulertzen ikasi.
- Zeure burua, nahigabeak edo pozak entzuteko prest dagoen norbait bezala aurkeztu.
- Lotura bat zarela erakutsi; auzokoan artean, erakundeen eta jendearen artean bitartekari gisa joka dezakezula.
- Bi ingurune horietako edozeinekin gehiegi identifikatzea saihestu; agintaritzaren mugan jardun.
- Antolatu trebakuntza, aisia, abentura edo astialdiko jarduerak, aukera berriak irekitzeko, eta partaidetza eta bizipen positiboak sustatzeko.
- Konfiantza-sentimendua sortu, eta jendeak gauzak eskatzeko eta entzunak izateko egoerak ere bai.

### • **Gako-hitzak.**

- Eskuragarritasuna eta gertutasuna.
- Presentzia ohikoa eta sendoa.
- Zuhurtzia, bizitza-eritmo eta kulturekiko errespetua.
- Paisaia ulertu.
- Garaiak ulertu.
- Kontaktuak egin.
- Komunitatearentzat erreferentziak.
- Malgutasuna: edozein egoerara moldatu.
- Lekuan bertan diharduten profesionalak ezagutu eta aitortu.
- Zeure tresnak eta baliabideak erabili.
- Laguntza ematen duen talde bat.



A black and white photograph of a cobblestone street. A person's shadow is cast on the right side of the frame, extending from the top right towards the center. The text is overlaid on the bottom half of the image.

**Kale heziketa  
Nazio artekoak  
(Laburbidut bertsiak)**



ourua  
(oa)



## kale heziketa nazioarteko eskuliburua

kaleko gizarte langileen nazioarteko sarearen "nazioarteko kale heziketari buruzko gidaliburua (2009)" lanetik ateratako jardunbidea, metodoak eta tresnak.

(laburbildutako bertsioa)



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Gizarte Politikako Departamentua  
Departamento de Política Social



Progress  
The EU programme for employment  
and social solidarity 2007-2013